

Barandiaran eta ETB-2

Euskaldunon Egunkaria, 1991-12-26: 3.

Larunbata, abenduak 21. Goizean goizetik lantxo bat idazten hasi nintzen, igandean EGUNKARIAn irten zedin. Alberto Elosegik UNICEF saria irabazi, eta merezi zuen aipamena.

Honetan ari nintzela pasa zidaten EGUNKARIA, eta lehen orrialdean ikusi nuen: "Barandiaranen Osasuna makaldu egin da oso larri dago"; pentsatu ere egin nuen, gure herriko aitona biziari atxikirik zegoela oraindik. Eta besterik gabe lana amaitu eta telefonoz pasa nion Maiteri, Iñaki Uriak igandeko edizioan. UNICEF-en sariari egin nion irazkina sar zezan.

Berandu nebilen.

Arratsaldean deitu zidan Joxemi Zumalabek, ea Aita Barandiaranen eskelarako lau lerro idatziko nituen... "Hil al da?", galdetu nion, eta ezin sinetsi nuen. Hamar bat minutu barru bidali nizkion telefonoz eskatutakoak, eta pentsatu nuen berandu zela hila zegoen don Joxe Migel eta negarrez egongo zen Pilar ikustera joateko.

Halaxe, dei pare bat egin, zerbait jan ere bai, eta gero jarri nintzen Euskal Telebistaren lehen katean ematen ari ziren futbola (Athletic-Valencia) ikusten; zortziedik inguru izango ziren bigarren katera pasa nintzenean, eta hemen! martxan zegoen Aita Barandiaranei egiten ari zitzaion elkarrizketa... Don Joxe Migel, bizirik. Nahiko eroria, dagoeneko, asmoak azaltzea kostatzen zitzaion. Aspaldi xamarrekoa elkarrizketa zirudien; behar bada orain urte pare bat gaixo egon zen hartakoa... Eta jarri nintzen entzuten. Galderak egiten ari zena ezaguna egiten zitzaidan, bibote handidun bat... Ez dakit hemengoa den, baina euskaldunaz gauza gutxi daki, eta gure herriko historiaz batere ez: *Ea euskaldunok nondik etorri ginen?*... Ezetz, gu, etorri, ez ginela inondik etorri, berton eboluzionatu zen Cro Magnon-go gizonaren ondorioa izan dela gure herria..., *Ea apaiz bezala tentazioak, mundua, sexoa, inoiz sentitu zituen*... Beno, berak bere fedeari zegokion bizitzaren proiektu bat egin zuela, eta horri eutsi diola, ez zuela arazorik izan..., honelako zerbait.. *Ikerleen hirukoteari, Aranzadi, Eguren eta Barandiarani: "Los tres tristes trogloditas" deitzen zietela, ea zergatik... Baserria, berak ezagutu bezala, bazihoala, eta ea Euskal Herriko geroa iragana baino hobea izango zen ala ez...*

Bederatziak jo eta oraindik jarraian... Neuk ez nuen pazientziarik izan, eta haserre bizia bai, indokumentatu haren galderak (eta don Joxe Migelen nekeak) entzuten geratzeko. Kazetari bezala badakit ondo elkarrizketa garrantzitsu bat egitera jartzen denak, elkarrizketatuaren lanen inguruko datoak jakin behar direla, eta zentzua duten galderak egin behar direla; eta, batez ere, errespetoarekin eginak; eta ez egin zuena; adineko, adin handiko, gizon baten barruan maliziazko miaketak egiten jarri; eta hau falta handia izanik, ez da Euskal Telebista batek, kasu honetan 2ak, egin zuena bezain

handia, zeren eta elkarrizketa negargarri hau elkarrizketatua hil eta gorpua oraindik hoztu gabe zegoela eman bait zuen!

Nik, neuk, eseri eta notatxo hau idatzi dut bero-bero.